



Olatz Arbelaiz

UPV/EHUko Donostiako Informatika Fakultateko irakasle eta ikertzailea

Covid-19a, teknologia eta generoa


Digitalizazioaren joera go-rakorra eta iraunkorra ez da ez berria, baina covid-19ak sortutako krisian egin den teknologia digitalaren erabilpenak digitalizazioak gizarte inklusiboak eta bidezkoak sustatzeko duen garrantzia nabarmendu du. Izan ere, arrakala digitalak berebiziko garrantzia hartu du, norbanakoek dituzten auke-
retan eta komunitateetan sartzeko gaitasunetan eragiten baitu zuzenean.

Covid-19ari emandako erantzunek teknologia eskura dugunon artean kezka handia sortu dute pribatutasunaren eta kontrolaren inguruan, baina, horrez gain, agerian utzi dute arrakala digitalak, alegia, teknologia eskuratu eta erabiltzeko oztopoek, desberdintasunak areagotu egiten dituztela.

Telefono bidezko konektibitateak eta Interneteko sarbideak guztientzat funtsezko eskubide izan beharko luketen arren, gaur egun pribilegioak dira. Izan ere, neskek, emakumeek eta talde baztertuek teknologia eskuratzeko aukera gutxiago dituzte. Hori bazen desabantaila larria krisi honen aurretik ere, baina, orain, covid-19aren pandemiak eguneroko bizitzako hainbat alderdi Internetera mugitu dituenek, konektibitate gabezia hori are larriagoa bihurtu da. Internet luxuzko tresna izatetik ezinbesteko tresna izatera igaro den arren, munduan 3,6 mila milioi lagunek ez dute oraindik konexiorik. Desberdintasun digitalek gizarte-
an oro har dauden desberdintasunak eta bereizkeria islatzen dituzten neurrian, pribilegio gutxien dituztenak dira konektibitate txikiagoa dutenak.

Diru-sarrera txiki eta ertaineko herrialdeetan, 433 milioi emakume ez daude konektatuta. Herrialde askotan, mutikoek 1,5 aldiz joera handiagoa dute telefono bat edukitzeko neskatoek baino, eta telefono adimendunak izateko joera ere, handiagoa da mutilen kasuan.

Gainera, hainbat ikerketak nabarmentzen dutenaren arabera, emakumezkoek, teknologia digitalak erabili arren, probabilitate gutxiagorekin dakite haien Interneterako sarbidea den gailuak eskaintzen dituen baliabide guztiak erabiltzen. Adibidez, Indian, telefono mugikor bat duten emakume gehienek egiten dakiten gauza bakarra deiak erantzutea da.



Egoera horrek esparru askotan jar-
tzen ditu desabantailan emakume eta talde baztertuak. Adibidez, krisia dela medio hazten ari den lineako merka-
taritzatik eta diru mugikorretik, eko-
nomia digitaletik alegia, erabat baz-
tertuta geratzeko probabilitate askoz
handiagoa dute. Besteak beste, esku-
dirua transferitzeko funtsezko progra-
mak ez dira iristen haiengana krisi ga-
raian.

Horrez gain, jakina da itxialdiaren ondorioz milioika neska-mutil, ema-
kume eta genero guztietako pertsona
zaugarrik jasaten duten itzaleko in-
darkeria handiagotzeko arriskua da-
goela alde batetik, eta bestalde, lagun-
tza jasotzeko aukerak mugatuagoak
direla. Pertsona horientzat, teknologia
defentsarako bide bat izan daiteke, bai
geolokalizazio funtzioa duten bereha-
lako mezularitzako zerbitzuen bidez,
bai doako abusu-lineetara deituz, bai
horretarako bereziki diseinatutako
aplikazio diskretuak erabiliz. Baina te-
lefonorik ez dutenentzat edo erabil-
tzen ez dakitenentzat, baliteke zerbi-
tzu horiek ez egotea edo atzitzeko
zailagoak izatea.

Egoera honetan, Interneterako sar-
bidea giza-eskubidea izan dadin konektibitate unibertsala-
ren alde borrokatu beharko genuke. Pertsona gehienak gai-
lu mugikorren bidez sartzen direnez Interneten –batez ere
diru-sarrera gutxiko herrialdeetan–, gobernuek eta gizarte
zibilak ordaindu ezin dutenentzat Interneterako doako sar-
rera edo sarrera merkea eskatu beharko liekete sare mugi-
korren operadoreei eta Interneteko zerbitzu-hornitzaileei.

Garapen iraunkorraren helburuak lortu eta inor atzean ez uzteko, konektibitateaz gain diskriminaziorik gabeko alfabetatze-digitala behar da. Haurrei eta emakume-
ei baliabide digitaletarako sarbidea ematea, bai eta ho-
riek diseinatu eta erabiltzeko ezagutza, prestakuntza eta
konfiantza ere. Horrek bermatuko du gero eta mundu di-
gitalago batean baztertuta ez egotea.

Bidegurutze batean gaude: koronabirusaren krisiak ge-
nero-arrakala digitalaren eragin okerrenak sendotzen utz
dezake edo krisia erabil dezakegu milioika neska eta ema-
kume linean egon daitezen lortzeko. Jarduteko unea
orain da. •